MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

Limpiar Formulario

TESORERÍA GENERAL
DE LA SEGURIDAD SOCIAL

TA.0040

# ESKAERA: ALTA/BAJA/DATU-ALDAKETA/HITZARMEN BEREZIA ETETEA/BERRIZ HASTEA

## 1. HARPIDEDUNAREN DATUAK

LEHEN ABIZENA | BIGARREN ABIZENA | IZENA | GIZARTE SEGURANTZAREN ZENBAKIA

JAIOTEGUNA: Eguna ☐ Hilabetea ☐ Urtea ☐

IDENTIFIKAZIO-DOKUMENTU MOTA: IFZ ☐ AIZ ☐ PASAPORTEA ☐

IDENTIFIKAZIO-DOKUMENTUAREN ZK.

HELBIDEA

BIDE MOTA | BIDE PUBLIKOAREN IZENA | BLOKEA | ZK. | BIS | ESKAIL. | SOLAIRUA | ATEA | POSTA.KOD

UDALERRIA/UDALERRIA BAINO LURRALDE-EREMU TXIKIAGOKO ERAKUNDEA | PROBINTZIA

DATU TELEMATIKOAK

POSTA ELEKTRONIKOA

ONARTZEN DUT GIZARTE SEGURANTZAREN INFORMAZIO-KOMUNIKAZIOAK BIDALTZEA BAI ☐ EZ ☐ TELEFONO MUGIKORRA

## 2. ESKAERA MOTA

ALTA ☐ DATUAK ALDATZEA/ETETEA/BERRIZ HASTEA ☐ BAJA ☐

## 3. HITZARMEN BEREZI MOTA (Hitzarmen berezi mota bakarra markatu beharko da)

☐ NORMALA EDO ARRUNTA (Hitzarmen mota hau hautatzen baduzu, alta emateko arrazoia adierazi beharko duzu 4.1. atalean)

BESTE HITZARMEN BEREZI MOTA BATZUK

- ☐ 52 URTETIK GORAKOEN LANGABEZIA-SOROSPENA JASOTZEN DUENA
- ☐ ESPAINIAN BIZI DIREN SUITZAR PENTSIODUNEN OSASUN-LAGUNTZA
- ☐ EUROPAR BATASUNEKO FUNTZIONARIOAK/ AGENTEAK
- ☐ LANALDI PARTZIALEKO KONTRATUA DUEN LANGILEA
- ☐ SASOIKO LANGILEA ETA FRUTA, BARAZKI ETA LANDARE-KONTSERBA SIST.BEREZIAK
- ☐ ENPLEGU-ANIZTASUNA EDO JARDUERA-ANIZTASUNA. ENPLEGU/JARDUERA UZTEA
- ☐ LANALDIA MURRIZTEA ETA SOLDATA PROPORTZIONALKI MURRIZTEA
- ☐ GOI-MAILAKO KIROLARIA
- ☐ ADUANA-AGENTZIETAKO LANGILEAK
- ☐ JARDUERARIK GABEKO DENBORALDIKO LANGILEA
- ☐ LANGABEZIA-SOROSPENA JASOTZEN DUEN ALDIZKAKO LANGILE FINKOA
- ☐ GREBA EDO UGAZABEN ITXIERA ADIERAZI AMAIERA-DATA: Eguna ☐ Hilabetea ☐ Urtea ☐
- ☐ LANEAN ESZEDENTZIARIK ERAGITEN EZ DUTEN BETEBEHAR PUBLIKOAK, BAIMENAK ETA LIZENTZIAK BETETZEA. ALTAN EGOTEA ORDAINSARIRIK GABE BESTE HITZARMEN BEREZI MOTA BATZUK

EMIGRATZAILEENTZAKO ETA EMIGRATZAILEEN SEME-ALABENTZAKO HITZARMENAK

- ATZERRIAN BIZI DIRENAK: ☐ EMIGRATZAILEAK ☐ EMIGRATZAILEEN SEME-ALABAK
- ITZULITAKOAK: ☐ EMIGRATZAILEAK ☐ EMIGRATZAILEEN SEME-ALABAK
- ☐ ESPAINIAN BIZI DIRENAK, ATZERRIKO ONTZIETAN

GOBERNU ARTEKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEETAKO FUNTZIONARIO EDO ENPLEGATU ESPAINIARRENTZAKO HITZARMENAK

☐ EGOITZA ESPAINIAN DUENA ☐ EGOITZA ATZERRIAN DUENA

76/2000 ETA 25/2001 ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEETAN SARTUTAKO LANGILEENTZAKO HITZARMENAK

Adierazi EEE SINTEL bidez enpresa utzi zenueneko data: Eguna ☐ Hilabetea ☐ Urtea ☐

Harpidedunak besteren konturako edo bere konturako jardueraren bat egiten du? BAI ☐ EZ ☐

Harpidedunak jasotzen al du 52 urtetik gorakoentzako langabezia-sorospena? BAI ☐ EZ ☐

## 4. ALTA-ESKAERARI BURUZKO DATUAK

### 4.1 ALTAREN ARRAZOIA

Aurreko atalean hitzarmen berezi normala edo arrunta hautatu baduzu, honako egoera hauetatik azkena identifikatu behar duzu:

- ☐ GIZARTE SEGURANTZAKO ERREGIMEN BATEAN BAJA EMATEA
- ☐ 65 URTETIK GORAKO NORBERAREN KONTURAKO LANGILEA, KOTIZATZETIK SALBUETSITA
- ☐ ERREGIMEN BATEAN BAJA EMATEA PENTSIOA ESKATZEAGATIK; ONDOREN, UKATU EGIN ZAIOA
- ☐ EZINTASUN IRAUNKOR OSOKO PENTSIODUNA IZANIK, GIZARTE SEGURANTZAKO ERREGIMEN BATEAN BAJA EMATEA
- ☐ BAJAREN AURREKO 12 HILABETEETAKO KOTIZAZIO-OINARRIEN BATEZ BESTEKOA BAINO KOTIZAZIO-OINARRI TXIKIAGOA DUTEN KONTRATAZIOA
- ☐ ETXEKO LANGILEENTZAKO SISTEMA BEREZIAN BAJA EMATEA
- ☐ LANGABEZIA PRESTAZIO EDO SOROSPENEAN BAJA EMATEA
- ☐ EZINTASUN IRAUNKORREKO PENTSIOA BERRIKUSTEA*
- ☐ 65 URTETIK GORAKO BESTEREN KONTURAKO LANGILEA, KOTIZATU BEHAR EZ DUENA
- ☐ EZINTASUN IRAUNKORREKO EDO ERRETIROKO PENTSIOA BALIOGABETZEA*

(*) Arrazoi hauek bakarrik markatu ahal izango dira harpidedunak ohiko lanbiderako erabat gai dela edo ezintasun iraunkor partziala duela adierazten duen ebazpena duenean, diagnostikoaren hobekuntzagatiko edo akatsagatiko berrikuspen-espedientearen ondorioz, edo pentsioa baliogabetzeko emandako ebazpenaren arabera.

### 4.2 ALTAREN ONDORIOAK (Jarraibideetan adierazitako kasuetan bakarrik bete)

☐ ERREGIMENEAN BAJA EMAN ETA HURRENGO EGUNA EDO HITZARMENA ESKATZEKO EGOERA ESKABIDEA AURKEZTU ZEN EGUNAREN HASIERA ☐ ESKABIDEA AURKEZTU DEN EGUNA

ADVERTENCIA: Existe a su disposición este impreso redactado en lengua castellana.

4.3 HITZARMENAREN KOTIZAZIO-OINARRIA (Jarraibideetan adierazitako kasuetan bakarrik bete)

☐ GEHIENEZKOA ☐ BATEZ BESTEKOA (AZKEN 12 HILABETEAK JARRAIAN) ☐ GUTXIENEKOA ☐ TARTEKOA. ADIERAZI AUKERATUTAKO ZENBATEKOA: ______

TARTEKOA. ADIERAZI AUKERATUTAKO ZENBATEKOA:
(Atal hau betetzeko, irakurri dokumentu honetan horri buruz agertzen diren jarraibideak)

BAI ☐ EZ ☐

KOTIZAZIO-OINARRIAREN GEHIKUNTZA AUTOMATIKOA
(Atal hau betetzeko, irakurri dokumentu honetan horri buruz agertzen diren jarraibideak)

BAI ☐ EZ ☐

## 5. DATUAK ALDATZEKO/HITZARMEN BEREZIA ETETEKO/BERRIZ HASTEKO ESKAERARI BURUZKO DATUAK

DATUAK ALDATZEKO ARRAZOIA/ETETEA/BERRIZ HASTEA

DATUEN ALDAKETAREN/ETETEAREN/BERREKITEAREN DATA Eguna ☐ Hilabetea ☐ Urtea ☐

## 6. BAJA-ESKAERARI BURUZKO DATUAK

BAJAREN ARRAZOIA

☐ BORONDATEZKOA ☐ HERIOTZA ☐ PENTSIODUN EGOERA ESKURATZEA* ☐ JARDUERA HITZARMENAREN ARABERAKO KOTIZAZIO-OINARRI BERDINAREKIN EDO HANDIAGOAREKIN HASTEA

☐ BESTE ARRAZOI BATZUK (adierazi zein)

(*) "Pentsiodun-egoera eskuratzeko" arrazoia soilik markatu ahal izango da hitzarmen bereziaren harpidedunak dagokion pentsioa aitortzeko ebazpena duenean, erakunde eskudunak emana.

## 7. ORDEZKARI BURUZKO DATUAK (harpideduna atzerrian bizi bada, nahitaezkoa izango da ordezkaria izendatzea)

ORDEZKARIAREN IZEN-ABIZENAK EDO SOZIETATEAREN IZENA

IDENTIFIKAZIO-DOKUMENTU MOTA: IFZ ☐ AIZ ☐ PASAPORTEA ☐

IDENTIFIKAZIO-DOKUMENTUAREN ZK

GIZARTE SEGURANTZAREN ZENBAKIA

HELBIDEA

| BIDE MOTA | BIDE PUBLIKOAREN IZENA | BLOKEA | ZK. | BIS | ESKAIL. | SOLAIRUA | ATEA | POSTA.KOD |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | |

| UDALERRIA/UDALERRIA BAINO LURRALDE-EREMU TXIKIAGOKO ERAKUNDEA | PROBINTZIA |
|---|---|
| | |

DATU TELEMATIKOAK

POSTA ELEKTRONIKOA

ONARTZEN DUT GIZARTE SEGURANTZAREN INFORMAZIO-KOMUNIKAZIOAK BIDALTZEA BAI ☐ EZ ☐ TELEFONO MUGIKORRA

## 8. JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA

HARPIDEDUNAREN HELBIDEA ☐ ORDEZKARIAREN HELBIDEA ☐

## 9. KUOTAK ORDAINTZEKO ARDURA DUENARI ETA ORDAINKETA HELBIDERATZEARI BURUZKO DATUAK

KUOTAK ORDAINTZEKO ARDURA DUEN PERTSONAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

KUOTAK ORDAINTZEKO ARDURA DUENAREN IZEN-ABIZENAK EDO SOZIETATEAREN IZENA

IDENTIFIKAZIO-DOKUMENTU MOTA (markatu "X" batez dagokiona): IFZ ☐ AIZ ☐

IDENTIFIKAZIO-DOKUMENTUAREN ZK.

GIZARTE SEGURANTZAREN ZENBAKIA (1)

HELBIDERATZEARI BURUZKO DATUAK

BANKU-KONTUAREN KODEA E S

ZORDUNKETA-KONTUAREN TITULARRAREN IZEN-ABIZENAK EDO SOZIETATEAREN IZENA

IDENTIFIKAZIO-DOKUMENTU MOTA: IFZ ☐ AIZ ☐

IDENTIFIKAZIO-DOKUMENTUAREN ZK.

GIZARTE SEGURANTZAREN ZENBAKIA

HELBIDEA

| BIDE MOTA | BIDE PUBLIKOAREN IZENA | BLOKEA | ZK. | BIS | ESKAIL. | SOLAIRUA | ATEA | POSTA.KOD |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | |

| UDALERRIA/UDALERRIA BAINO LURRALDE-EREMU TXIKIAGOKO ERAKUNDEA | PROBINTZIA |
|---|---|
| | |

DATU TELEMATIKOAK

POSTA ELECTRONIKOA

ONARTZEN DUT GIZARTE SEGURANTZAREN INFORMAZIO-KOMUNIKAZIOAK BIDALTZEA BAI ☐ EZ ☐ TELEFONO MUGIKORRA

SINADURA

Agindu/mandatu hau sinatuta, helbideratze-datuen titularrak baimena ematen du:
(I) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari (GSDN) zordunketa-jarraibideak bidal diezazkion adierazitako finantza-erakundeari, Gizarte Segurantzako kuoten kontzeptuan, langilearen edo ordainketa-arduradunaren kontura.
(II) Finantza-erakundeari, bere kontrako zordunketak egiteko, jarraibideei jarraituz GSDN.

1) Afiliazio-zenbakia. Kotizazio-kontuaren kodea edo espediente-zenbakia.
(2) Kontuaren titularraren eta ordainketa-arduradunaren sinadura, nahiz eta pertsona bera izan.

Kontuaren titularraren sinadura (2)

Ordainketa-arduradunaren sinadura (2)

SINADURAREN DATA
Eguna ☐ Hilabetea ☐ Urtea ☐

ADVERTENCIA:
Existe a su disposición este impreso redactado en lengua castellana.

TA.0040 01/2024

## 10. ZENBAIT HITZARMENEN ALTA/DATU-ALDAKETA ESKATZEKO DATU OSAGARRIAK

Kasu hauetan bakarrik beteko da:

- ESPAINIAN BIZI DIREN SUITZAKO PENTSIODUNEN OSASUN-LAGUNTZARAKO HITZARMEN BEREZIAK
- EMIGRATZAILEENTZAKO ETA EMIGRATZAILEEN SEME-ALABENTZAKO HITZARMEN BEREZIA
- GOBERNU ARTEKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEETAKO FUNTZIONARIO EDO ENPLEGATU ESPAINIARRENTZAKO HITZARMEN BEREZIA

### 10.1 ESPAINIAN BIZI DIREN SUITZAKO PENTSIODUNEN OSASUN-LAGUNTZARAKO HITZARMEN BEREZIAK

ITZULERA-DATA EDO OHIKO BIZILEKUA ESPAINIAN FINKATZEKO DATA EDO PENTSIOA AITORTZEKO DATA (GEROAGOKOA BADA)

Eguna ☐ Hilabetea ☐ Urtea ☐

LAN-JARDUERA EGIN ZEN HERRIALDEAK JASOTAKO PENTSIOA, ERRENTA EDO OROHARREKO ZENBATEKOA DAKARREN KONTINGENTZIA

GAIXOTASUN ARRUNTA EDO LANETIK KANPOKO ISTRIPUA ☐ LAN-ISTRIPUA EDO LANBIDE-GAIXOTASUNA ☐

ESPAINIAN BIZI DEN HILDAKO PENTSIONISTA SUITZARRAREN DATUAK

| ABIZENAK ETA IZENA | HERIOTZA-DATA | NAN/PASAPORTEA | GIZARTE SEGURANTZAREN ZENBAKIA |
|---|---|---|---|
| | | | |

HARPIDEDUNAK BA AL DU GIZARTE SEGURANTZAREN OSASUN-LAGUNTZARAKO ESKUBIDERIK? BAI ☐ EZ ☐

SINADURA

GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINTZA NAGUSIAK EGIAZTATUKO DU, DATUEN BITARTEKARITZARAKO PLATAFORMARI KONTSULTA EGINEZ, HITZARMEN BEREZI HAUNATZEKO ETA MANTENTZEKO LEGEZ EZARRITAKO HELBIDE ETA BIZILEKUAREN BALDINTZA BETETZEN DEN.

KONTSULTAREN AURKA NAGO ☐

### 10.2 EMIGRATZAILEENTZAKO ETA EMIGRATZAILEEN SEME-ALABENTZAKO HITZARMEN BEREZIA

☐ ATZERRIAN BIZI DIRENAK

ATZERRIAN EGINDAKO LANBIDE-JARDUERA

JARDUERA ATZERRIAN HASI ZENEKO DATA: Eguna ☐ Hilabetea ☐ Urtea ☐

ATZERRIAN BIZI DEN HERRIALDEA

NOIZTIK: Eguna ☐ Hilabetea ☐ Urtea ☐

NOIZ ARTE: Eguna ☐ Hilabetea ☐ Urtea ☐

☐ ESPAINIARA ITZULITAKOAK

ATZERRIAN EGINDAKO AZKEN JARDUERA PROFESIONALA

ATZERRIKO JARDUERA UZTEKO DATA: Eguna ☐ Hilabetea ☐ Urtea ☐

HERRIALDEA NON AZKEN JARDUERA PROFESIONALA EGIN ZUEN

ESPAINIARA ITZULTZEKO DATA: Eguna ☐ Hilabetea ☐ Urtea ☐

ITZULITAKO EMIGRATZAILEA GIZARTE-AURREIKUSPENEKO ARAUBIDE JURIDIKOREN BATEAN SARTUTA AL DAGO? BAI ☐ EZ ☐

SINADURA

GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINTZA NAGUSIAK EGIAZTATUKO DU, DATUEN BITARTEKARITZARAKO PLATAFORMARI KONTSULTA EGINEZ, HITZARMEN BEREZI HAUNATZEKO ETA MANTENTZEKO LEGEZ EZARRITAKO HELBIDE ETA BIZILEKUAREN BALDINTZA BETETZEN DEN.

KONTSULTAREN AURKA NAGO ☐

### 10.3 GOBERNU ARTEKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEETAKO FUNTZIONARIO EDO ENPLEGATU ESPAINIARRENTZAKO HITZARMEN BEREZIA

GOBERNU ARTEKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEAREN IZENA

GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINTZA NAGUSIAK EGIAZTATUKO DU, DATUEN BITARTEKARITZARAKO PLATAFORMARI KONTSULTA EGINEZ, HITZARMEN BEREZI HAUNATZEKO ETA MANTENTZEKO LEGEZ EZARRITAKO HELBIDE ETA BIZILEKUAREN BALDINTZA BETETZEN DEN.

KONTSULTAREN AURKA NAGO ☐

## 11. ESKAERAREN SINADURA

| HARPIDEDUNAREN SINADURA | ORDEZKARIAREN SINADURA ETA ZIGILUA |
|---|---|
| | |

## 12. ESKAERA MOTAREN ETA HITZARMEN BEREZIAREN ARABERA AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA

KONTSULTATU ESKABIDE HONEN JARRAIBIDEETAKO 12. ATALA, KASU BAKOITZEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOAREN BERRI EMATEN DUENA.

ADVERTENCIA:
Existe a su disposición este impreso redactado en lengua castellana.

TA.0040 01/2024

# A R G I B I D E A K

Dokumentua makinaz edo letra larriz bete beharko da, zuzenketarik eta zirriborrorik gabe.
Eredu hau hitzarmen berezietako alta, baja edo datu-aldaketa eskaerak egiteko erabiltzen da, salbu eta zaintzaile ez-profesionalen hitzarmen berezia, desgaitasuna duten pertsonen hitzarmen berezia, EEE hitzarmen berezia (EEE SINTEL izan ezik), eta praktikengatiko hitzarmen berezia, formulario espezifikoak baitituzte.

## 1. HARPIDEDUNAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

***(Kasu guztietan beteko da)***

**Abizenak eta izena:** hitzarmen bereziaren harpidedunaren abizenak eta izen osoa adieraziko dira.
**Gizarte Segurantzako zenbakia**: harpidedunaren Gizarte Segurantzako zenbakia edo afiliazio-zenbakia idatziko da.
**Jaiotze-data**: harpidedunaren jaiotze-data adieraziko da.
**Identifikazio-agiriaren mota eta zenbakia**: markatu "X" batez: Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ), Atzerritarraren Identifikazio Zenbakia (AIZ) edo pasaporte-zenbakia, eta adierazi pasaportearen zenbakia.
**Helbidea**: harpidedunaren ohiko bizilekua adieraziko da. Bide publikoaren izenaren eta udalerria/udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko entitatearen izenak osorik idatziko dira. Helbide hori jakinarazpenetarako erabiliko da, 8. paragrafoan, jakinarazpenetarako helbideari buruzkoan, jakinarazpenak ordezkariaren helbidean jasotzea erabakitzen denean izan ezik.
**Datu telematikoak**: "bai" idatzita, Gizarte Segurantzaren informazio-komunikazioak onartuko dira.

## 2. ESKABIDE-MOTA

***(Kasu guztietan beteko da)***

"X" batez markatuko da zer motatako eskaera den: alta, datu-aldaketa, baja, etendura edo hitzarmen bereziaren berrekitea.

## 3. HITZARMEN BEREZI MOTA

***(Hitzarmen berezian alta ematea eskatzen den kasuetan beteko da)***

**Normala edo arrunta**: "X" batez markatuko da eskaera mota horretako hitzarmen bereziari buruzkoa bada.
**Emigratzaileentzako eta emigratzaileen seme-alabentzako hitzarmenak**: "X" hizkiarekin markatuko da eskaera egiteko erabiltzen den hitzarmenaren identifikazioa (atzerrian bizi direnak, itzulitakoak edo Espainian bizi direnak atzerriko ontzietan). Era berean, atzerrian bizi diren edo itzuli diren aukerak markatu badira, "X" batez markatuko da hitzarmen bereziaren harpideduna emigratzailea edo emigratzailearen seme-alaba den. Hitzarmen berezi mota honen eskatzaileek formulario honetako 10.2 atala bete behar dute nahitaez.
**Gobernu arteko Nazioarteko Erakundeetako funtzionario edo langile espainiarrentzako hitzarmenak**: "X" batez markatuko da Espainian egoitza duen edo atzerrian egoitza duen erakundea den. Hitzarmen berezi mota honen eskatzaileek formulario honetako 10.3 atala bete behar dute nahitaez.
**76/2000 eta 25/2001 (SINTEL) enplegu-erregulazioko espedienteetan sartutako langileentzako hitzarmenak:** nahitaezkoa izango da enplegu-erregulazioko espedientearen ondorioz enpresan baja zein egunetan hartu zuen idaztea. Halaber, harpidedunak besteren konturako edo bere konturako jardueraren bat egiten duen ala ez adieraziko da. Gainera, harpideduna erretiro-gertakariagatik kotizatzeko eskubidea duten 52 urtetik gorakoentzako sorospenaren hartzailea den ala ez adieraziko da.
**Beste hitzarmen berezi mota batzuk**: "X" batez markatuko da zein hitzarmen bereziren eskaera egiten den. Greba edo ugazaben itxiera markatu bada, grebaren edo ugazaben itxieraren amaiera-data adieraziko da.

## 4. ALTA-ESKAERARI BURUZKO DATA

***(Hitzarmen berezian alta ematea eskatzen den kasuetan beteko da)***

**4.1. Altaren arrazoia**: 3. paragrafoan adierazitako hitzarmen berezia Normala edo arrunta bada soilik beteko da. "X" batez markatuko da hitzarmen berezia eskatzeko arrazoia
**4.2. Altaren ondorioak**: 3. paragrafoan jasotako hitzarmen bereziaren mota honako hauetakoren bat bada soilik beteko da: Normal aedo arrunta, 52 urtetik gorakoentzako langabezia-sorospena jasotzen duena, langabezia-sorospena jasotzen duen aldizkako langile finkoa, lanaldiaren murrizketa soldataren jaiste proportzionalarekin, lanaldi partzialerako kontratatutako langileak edo gobernuen arteko nazioarteko erakundeetako funtzionario edo langile espainiarrak.
"Bajaren hurrengo eguna hitzarmena eskatzen duen erregimenean edo egoeraren hasieran" aukera soilik markatu ahal izango da hitzarmen berezian alta emateko eskaera jarduera utzi ondorengo 90 egun naturalen barruan aurkezten denean edo hitzarmen berezia sinatzeak dakarren egoeran aurkezten denean. Adierazitako epetik kanpo aurkezten bada, hitzarmen bereziak eskaera aurkezten den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, hautatutako aukera edozein dela ere.
**4.3. Hitzarmenaren kotizazio-oinarria**: 3. paragrafoan jasotako hitzarmen bereziaren mota honako hauetakoren bat bada soilik beteko da: normala edo arrunta, 52 urtetik gorako langabezia-Sorospenaren Jasotzailea, langabezia-sorospena jasotzen duen aldizkako Langile finkoa, lanaldiaren Murrizketa soldataren jaiste proportzionalarekin, lanaldi partzialeko kontratua duen Langilea, goi-mailako Kirolaria, nazioarteko erakundeetako Funtzionarioak/enplegatuak, Europar Batasuneko funtzionarioak edo agenteak.
Etxeko Langileentzako Sistema Berezian baja hartu izanagatik hitzarmen berezi normal edo arruntean alta eskatzen bada, "gutxieneko oinarria" kotizatzea aukeratzen bada, Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Erregimen Bereziko gutxieneko oinarria aplikatuko zaio.
**Kotizazio-oinarriaren eguneratzea**: GEHIENEKO OINARRIA edo BATEZ BESTEKO OINARRIA aukeratu badu, oinarri hori laneko bajaren edo jarduera uztearen ondorengo ekitaldi bakoitzean handitzea nahi duen ala ez adieraziko da, bere lanbide-kategoriari dagokion kotizazio-taldearen gehieneko oinarria edo kokatuta egon den erregimenarena handitu zen ehuneko berean. Atal hau soilik bete ahal izango da laneko baja eta hitzarmenaren ondorioak urte natural berean gertatzen ez badira.
**Kotizazio-oinarriaren gehikuntza automatikoa**: GEHIENEKO OINARRIA, BATEZ BESTEKO OINARRIA edo TARTEKO OINARRIA aukeratu badu, oinarri hori automatikoki handitzea nahi den ala ez adieraziko da aurrerantzean dagokion Gizarte Segurantzako Erregimenaren gehieneko kotizazio-oinarria handitzen den ehuneko berean. Igoera hori aukeratzen ez bada, oinarria automatikoki handituko da, aurrerantzean norberaren konturako Langileen Erregimen Bereziaren gutxieneko kotizazio-oinarria handitzen den ehuneko berean. Halaber, azken igoera hori aplikatuko da GUTXIENEKO OINARRIA aukeratu badu.

## 5. DATUAK ALDATZEKO/ETETEKO/BERRIZ HASTEKO ESKAERARI BURUZKO DATUAK

***(Hitzarmen berezia etetea, berriz hastea edo hedatzea eskatzen den kasueta beteko da)***

**Datuak aldatzea /etetea/berriz hastearen arrazoia**. Hitzarmen bereziaren datuak aldatzea edo etetea edo berriz hastea eragin duen arrazoia adieraziko da.

**Datu-aldaketaren/etetearen/berriz hastearen data**. Hitzarmen bereziaren datu-aldaketaren, etetearen edo berriz hastearen data adieraziko da.

## 6. BAJA-ESKAERARI BURUZKO DATUAK

**(*Hitzarmen berezian baja eskatzen den kasuetan beteko da*)**

"X" batez markatuko da zergatik eskatzen den baja hitzarmen berezian. Aurreikusitakoez bestelako arrazoirik izanez gero, arrazoia zein den adieraziko da. Aukeratutako arrazoia "borondatezkoa" bada, baja-eskaera aurkeztu den hilabeteko azken egunean iraungiko da hitzarmen berezia. "Pentsiodun-izaera eskuratzeko" arrazoia soilik ezarri ahal izango da hitzarmen bereziaren harpidedunak dagokion pentsioa aitortzeko ebazpena duenean, eskumena duen erakundeak emana. Kasu horretan, hitzarmen bereziko baja pentsiodun-izaera hartu aurreko egunean izango da, eskaera zein unetan aurkezten den kontuan hartu gabe.

## 7. ORKEZKARIARI BURUZKO DATUAK

**(*Eskaera harpidedunaren ordezkari batek aurkezten duenean beteko da*)**

**Ordezkariaren izen-abizenak edo sozietatearen izena**: ordezkariaren abizenak eta izen osoa edo sozietatearen izena adieraziko dira.
**Identifikazio-agiriaren mota eta zenbakia**: markatu "X" batez: Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ), Atzerritarraren Identifikazio Zenbakia (AIZ) edo Pasaportea, eta adierazi pasaportearen zenbakia.
**Gizarte Segurantzako zenbakia**: ordezkariaren Gizarte Segurantzako Zenbakia edo Afiliazio-Zenbakia idatziko da.
**Helbidea**: ordezkariaren helbidea adieraziko da.
**Datu telematikoak**: "bai" idatzita, Gizarte Segurantzaren informazio-komunikazioak onartuko dira.

## 8. JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA

"X" batez markatuko da harpidedunaren edo ordezkariaren datuetan idatzitako helbidea, Gizarte Segurantzaren Administrazioaren jakinarazpenak jasotzeko.

## 9. KUOTAK ORDAINTZEKO ARDURA DUENARI ETA ORDAINKETA HELBIDERATZEARI BURUZKO DATUAK

***(Atal honi dagozkion datu guztiak nahitaez bete beharko dira)***

Kotizazioaren sarreraren subjektu arduraduna, oro har, hitzarmen bereziaren harpideduna da. Kasu honetan, kotizazioaren diru-sarreraren subjektu erantzuleari buruzko datuetan harpidedunaren beraren datuak idatzi beharko dira.

Hala ere, harpideduna ez den pertsona fisiko edo juridiko batek har dezake bere gain ordainketaren erantzukizuna. Kasu honetan, kotizazioa ordaindu behar duen subjektuari buruzko datuetan, erantzukizun hori bere gain hartzen duenaren datuak idatzi beharko dira.

Gainera, kuotak ordaintzeko erabiltzen den banku-kontuaren titularra eta kuotak ordaintzeko ardura duen subjektua desberdinak izan daitezke. Kasu honetan, zordunketa-kontuaren titularraren datuak bete beharko dira.

Ianahi ere, kontuaren titularrak sinatu behar du, bai eta ordaintzeko arduradunak ere, pertsona bera bada ere.

Kuoten ordainketa helbideratuz, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak zordunketa-agindu bat emango dio bere Banku edo Kutxari, kotizazioak borondatezko epean ordain ditzan, hilaren azken egun baliodunean.

## 10. HITZARMEN MOTA JAKIN BATZUEN ALTA/DATU-ALDAKETA ESKATZEKO DATU OSAGARRIAK

10.1 ESPAINIAN BIZI DIREN SUITZAKO PENTSIODUNEN OSASUN-LAGUNTZARAKO HITZARMEN BEREZIAK.
Itzulera-data edo ohiko bizilekua Espainian finkatzeko data, edo pentsioa aitortzeko data (geroagokoa bada): ohiko bizilekua Espainian finkatzeko data idatziko da, edo, itzulera baino geroagokoa bada, atzerriko gizarte-aurreikuspeneko sistemako pentsiodun-izaera eskuratzeko data.
Lan-jarduera gauzatu zuten herrialdeak jasotako pentsioaren, errentaren edo oroharreko kantitatearen sorburu den kontingentzia: pentsioa eragin duen kontingentzia, jasotako oroharreko errenta edo kopurua kontingentzia arruntetatik edo kontingentzia profesionaletatik datorren adieraziko da.
Espainian bizi den pentsiodun suitzar hildakoaren datuak: hitzarmen berezia hildako Suitzako pentsiodunaren senitartekoak sinatzen badu, hildako Suitzako pentsiodunaren identifikazio-datuak eta heriotza-data adieraziko dira.

Gizarte Segurantzaren osasun-laguntzarako eskubideari buruzko adierazpena: hitzarmen berezia hildako Suitzako pentsiodunaren senideren batek eskatzen badu, senideak adierazpen hau egingo du, dagokion atala "X" batez markatuta. Gainera, dagokion laukian sinatu beharko du.
Datuen Bitartekotzarako Plataformari kontsulta egitearen aurka agertzea: lauki hau markatuko da harpideduna GSDNak Datuen Bitartekaritzarako Plataformaren bidez helbideari eta bizilekuari buruzko baldintza betetzearen aurka badago. Aurka eginez gero, eskabidearekin batera nahitaez aurkeztu beharko du errolda-ziurtagiria.

10.2 EMIGRATZAILEENTZAKO ETA EMIGRATZAILEEN SEME-ALABENTZAKO HITZARMEN BEREZIA
"ATZERRIAN BIZI DIRENAK" ataleko edo "ESPAINIARA ITZULITAKOAK" ataleko datu guztiak beteko dira, atzerrian bizi diren emigratzaileen hitzarmen berezi batean edo Espainiara itzulitako emigratzaileen hitzarmen berezi batean alta emateko edo datuak aldatzeko eskatzen den kontuan hartuta, hurrenez hurren.
Hitzarmen berezia itzulitako emigranteak eskatzen badu, honako eremu hauek bete beharko dira:
Harpideduna gizarte-aurreikuspeneko erregimen juridikoren batean sartzeari buruzko adierazpena: nahitaez markatu beharko da harpideduna Gizarte-Aurreikuspeneko erregimenen batean sartuta dagoen ala ez. Gainera, dagokion laukian sinatu beharko da.
Datuen Bitartekotzarako Plataformari kontsulta egitearen aurka agertzea: lauki hau markatuko da harpideduna GSDNak Datuen Bitartekaritzarako Plataformaren bidez helbideari eta bizilekuari buruzko baldintza betetzearen aurka badago. Uko eginez gero, eskabidearekin batera nahitaez aurkeztu beharko du errolda-ziurtagiria.

10.3 GOBERNU ARTEKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEETAKO FUNTZIONARIO EDO ENPLEGATU ESPAINIARRENTZAKO HITZARMEN BEREZIA
Nahitaez bete beharko da hitzarmen bereziaren harpidedunak zerbitzuak ematen dizkion gobernu arteko nazioarteko erakundearen izendapenari buruzko eremua.
Datuen Bitartekotzarako Plataformari kontsulta egitearen aurka agertzea: Espainian egoitza duten Gobernuarteko Nazioarteko Erakundeen kasuan, lauki hau markatuko da harpideduna GSDNak helbide eta bizileku-datuak Datuen Bitartekotzarako Plataformaren bidez kontsultatzearen aurka badago. Uko eginez gero, eskabide honekin batera erroldatze-ziurtagiria aurkeztu beharko duzu.

## 11. ESKAERAREN SINADURA

Eskaera sinatzea nahitaezkoa da.

## 12. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

**A.- ALTA ESKAERA**

Alta-eskabide guztiekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko da nahitaez:
- Harpidedunaren identifikazio-agiria: Nortasun Agiri Nazionala – IFZ –, atzerritarraren identifikazio-txartela – AIZ – edo pasaportea, formulario honetako 1. atalean hautatutako aukeraren arabera.
- Harpideduna ez badago Espainiako Gizarte Segurantzan afiliatuta, Afiliazio Zenbakia (AFZ) edo Gizarte Segurantzakoa (GSZE) izan beharko du hitzarmen hau sinatu ahal izateko. AFZ/GSZEa telematikoki lor daiteke "Gizarte Segurantzaren Zenbakia eskatu" zerbitzuaren bidez. Zerbitzu hori Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren Atarian dago, "Altak, bajak eta aldaketak" atalean. Bestela, eskaera honekin batera, Gizarte Segurantzaren webgunean eskuragarri dagoen TA.1 eredua aurkez dezakezu.

Jarraian, alta-eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazio espezifikoa adierazten da, hitzarmen motaren arabera:

**NORMALA EDO ARRUNTA: ALTA EMATEKO ARRAZOI** gisa hautatu denean:
- Ezintasun iraunkorreko pentsioaren berrikuspena: hobekuntza edo diagnostiko-akatsarengatiko berrikuspen-espedientearen ondorioz harpideduna guztiz gai dela edo ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor partziala duela adierazten duen ebazpenaren kopia.
- Ezintasun iraunkorreko edo erretiroko pentsioa baliogabetzea: pentsioa baliogabetzeko administrazio-ebazpenaren edo epai irmoaren kopia.
- Pentsioa eskatzeagatik erregimen batean baja ematea, ondoren ukatu egin zena: pentsioa ukatzeko administrazio-ebazpenaren edo epai irmoaren kopia.

**GOI-MAILAKO KIROLARIAK:** Goi mailako kirolari izatearen egiaztagiria.

**76/2000 ETA 25/2001 (SINTEL) ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEETAN SARTUTAKO LANGILEAK**: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak ezarritako eredu ofiziala, ekainaren 19ko 1010/2009 Errege Dekretuan araututako laguntza eskatzeko, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari zuzendua.

**IKATZ-MEATZARITZAREN ERREGIMEN BEREZIAN SARTUTAKO LANGILEAK:** Enpresaren edo enpresen ziurtagiria, hitzarmena sinatzeko enpresa uzten dueneko lanbide-kategoria adierazten duena.

**SUITZAR PENTSIOEN HARTZAILEAK, ESPAINIAN BIZI DIRENAK:**
- Eskatzailea Gizarte Segurantzaren Suitzako legedi federalaren arabera esklusiboki emandako pentsio edo errenta baten titularra dela egiaztatzen duen agiria.
- Suitzako edo Espainiako nazionalitatea duela egiaztatzen duen agiria.
- Eskaera honen 10.1 atalean adierazitako Datuen Bitartekaritzarako Plataformaren kontsultari aurka egin badio, ohiko bizilekua Espainian ezarri zueneko data egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du (errolda-ziurtagiria).
Hildako titularraren senideei dagokienez:
- Heriotza-ziurtagiria.
- Hildakoarekiko ahaidetasuna, mendekotasun ekonomikoa eta bizikidetza egiaztatzen duen agiria.
- Titularrari aurreko atalean eskatutako dokumentazio bera (hildakoa osasun-laguntzako hitzarmenaren a ez bada).

**ATZERRIAN LAN EGITEN DUTEN EMIGRATZAILEAK ETA HORIEN SEME-ALABAK, SEKULARRAK, MISIOLARIAK ETA KOOPERANTE ESPAINIARRAK**
- Kuota Espainian irekitako kontu batean helbideratzen bada, eta kontu horren titularrak NANik ez badu, bizi den herrialdeko Espainiako kontsulatuak edo enbaxadak emandako IFZ aurkeztu beharko du.
- Emigratzaileak atzerrian egindako egonaldia egiaztatzeko, bizileku- edo egonaldi-baimenaren kopia aurkeztu ahal izango da, herrialde horretako dagozkien agintariek emana, Espainiako Lan eta Immigrazio Kontseilaritzak edo immigrazio-herrialdeko Espainiako Kontsulatuak konpultsatua, edo Espainiako enbaxadaren edo kontsuletxearen matrikula-erregistroko inskripzio-ziurtagiria.
- Atzerrian egindako lana, zerbitzuak edo prestakuntza zuzenbidean onartutako edozein bidez egiaztatu ahal izango da, eta, bereziki, kontseilaritzak edo kontsulatuak itzulita eta konpultsatuta, honako hauen bidez:
- Lan-baimenaren kopia edo enpresak emandako lan-ziurtagiria.
- Sekular, misiolari edo kooperante izatearen ziurtagiria, bere menpeko erakunde edo instituzioak emana.
- Prestakuntza edo ikerketa-programetan parte hartu izanaren ziurtagiria, enpresak, erakundeak edo instituzioak emana.

**EMIGRANTEAK ETA HAUEN SEME-ALABAK, ITZULITAKO ESPAINIARRAK**
- Jarduera atzerrian egin dela egiaztatzeko, zuzenbidean onartutako edozein agiri aurkeztu beharko da (adibidez: azken nomina, lan-kontratuaren likidazioa), jarduera egin dela, jarduera bertan behera utzi dela eta Espainiako lurraldera itzuli zen herrialdeko Gizarte Segurantzan sartu dela egiaztatzeko.
- Espainiako lurraldera itzuli izana egiaztatzeko, Gobernuaren Ordezkariordetzaren ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko da, Espainiako lurraldera noiz itzuli den adierazten duena, edo, bestela, Kontsulatuko Matrikularen Erregistroan baja eman izanaren ziurtagiria.
- Eskaera honen 10.2 atalean adierazitako Datuen Bitartekaritzarako Plataformaren kontsultari aurka egin badio, dagokion udal-erroldan alta emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

**ATZERRIAN EGOITZA DUTEN GOBERNU ARTEKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEETAKO FUNTZIONARIO EDO ENPLEGATU DIREN ESPAINIARRAK.**
- Erakunde horietako funtzionario edo enplegatu izaera dagokion erakundeak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da, Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioak berretsita.
- Atzerrian bizi dela egiaztatzeko, herrialde horretako dagozkien agintariek emandako bizileku edo egonaldi-baimenaren kopia aurkeztu ahal izango da, Espainiako Lan eta Immigrazio Kontseilaritzak edo herrialde horretako Espainiako Kontsulatuak konpultsatuta, edo Espainiako enbaxadaren edo kontsuletxearen matrikula-erregistroko inskripzio-ziurtagiria.

**ESPAINIAN EGOITZA DUTEN GOBERNU ARTEKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEETAKO FUNTZIONARIO EDO ENPLEGATU DIREN ESPAINIARRAK**
- Erakunde horietako funtzionario edo enplegatu izaera dagokion Erakundeak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da, Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioak berretsita.
- Eskaera honen 10.3 atalean adierazitako Datuen Bitartekaritzarako Plataformaren kontsultari aurka egin badio, dagokion udal-erroldan alta emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

**B.- DATUAK ALDATZEKO ESKAERA**

Datuak aldatzeko eskaerekin batera, kasuan kasuko hitzarmen berezian izandako aldaketa justifikatzen duten agiriak aurkeztu behar dira..

**C.- BAJA ESKAERA**

Hitzarmen bereziko baja-eskaerekin batera, baja justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar da, borondatezko baja-eskaera denean izan ezik.

| Oinarrizko Informazioa “ENPRESEN AFILIAZIOA ETA IZEN-EMATEA” Tratamenduaren Datuen Babesari buruz | |
|---|---|
| **Erantzulea** | Azpi. Nag. Afiliazioa, Kotizazioa eta Diru Bilketa Borondatezko Epean - Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia. |
| **Helburua** | Langileen afiliazioaren, enpresen izen-ematearen eta RED baimenen kudeaketa integratua. Langileen afiliazio, alta, baja eta aldaketen datuen eta enpresen izenematearen kudeaketa, eguneratzea eta kontsulta. |
| **Legitimazioa** | ▪ RGPD.- 6 Artikulua. 1. a) interesdunak baimena eman zuen bere datu pertsonalak tratatzeko helburu espezifiko bakar edo batzuetarako.<br>▪ RGPD.- 6 Artikulua. 1. c) tratamendua ezinbestekoa da tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion lege-betebehar bat betetzeko.<br>▪ RGPD.- 6 Artikulua. 1. e) tratamendua ezinbestekoa da tratamenduaren arduradunari esleitutako interes publikorako egin den edo botere publikoak erabiltzean egindako helburua betetzeko.<br>▪ Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra, Testu Bategina (8/2015 ED - Legegilea). |
| **Norentzat** | Gizarte Segurantzaren Erakunde Kudeatzaileentzat, Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzarentzat, Gizarte Segurantzaren Mutualitate Lankideentzat, Soldatak Bermatzeko Funtsarentzat, Ministerioetako Sailentzat, Zerga Administrazioko Estatu Agentziarentzat, Estatistikako Institutu Nazionalarentzat, Autonomia Erkidegoentzat, Tokiko Entitateentzat, Epaitegi eta Auzitegientzat, Eragile Sozialentzat eta Finantza Erakundeentzat. |
| **Eskubideak** | Baimenik gabeko tratamenduak atzitzeko, zuzentzeko eta horiei aurka egiteko eskubidea duzu, baita beste eskubide batzuk ere, informazio gehigarria adierazten den moduan. |
| **Informazio Gehigarria** | Datuak babesteari eta tratamendu honi buruzko informazioa kontsulta dezakezu gure egoitza elektronikoa |